



Abeltzaintza ekologikoa, inguruarekin bat

Galarraga Aiestaran, Ana

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



A. GALARRAGA

Euskal Herrian, abeltzaintza ekologikoa ez da nekazaritza ekologikoa bezain ezaguna. Dena dela, gero eta baserritar gehiagok aukeratzen dute abeltzaintza-mota hori; izan ere, abantaila nabariak ditu. Baina oztopoak ere baditu, merkaturatzean batez ere. Oztopo horiek gainditzeko erronkari aurre eginez, pauso txikiz baina seguruz, abeltzaintza ekologikoa bidea egiten ari da.

ABELTZAINZA EKOLOGIKOA INGURUNEAREKIN BAT EGITEN DUEN ekoizpen-eredu bat da. Eredu hori tokian tokiko ingurura moldatzen da, eta, beraz, ez ditu ezaugarri berak leku batean zein bestean. Baina beti oinarritzen da abereek lurraekin duten harremanean eta elkarrekintzan.

Abereek lurretik hartzen dute janaria, eta, aldi berean, lurra ongarritzen eta aberasten dute gorotzen bidez. Lurra-aren emankortasuna bermatzea da helburua, eta baita biodibertsitatea zaintzea ere.

Abeltzainek, lurrari ez ezik, urari ere erreparatzen diote. Hain zuzen ere, abeltzaintza intentsiboaren arazoetako

bat hondakin-uren arazketa da. Euskal Herrian, lur-motagatik eta euri asko egiten duelako, erraza da gorotzek lur azpiko urak poluitzea. Hori saihesteko, abeltzaintza ekologikoan ondo zehaztuta dago zenbat buru har ditzakeen eremu batek.

Hala, hektarea bakoitzeko gehienez ere bi abelburu edo dozena bat ardi egon daitezke. Horrekin bermatu nahi da animaliek nahiko janari izatea, eta, gainera, ura ez kutsatzea. Abereen gorozkiez gain, ongarri kimikoek ere poluitzen dute ura, baina abeltzaintza ekologikoan ezin da ongarri kimikorik erabili. ➔

Antibiotikorik ez

Urte batzuetan barra-barra erabili izan dira antibiotikoak abere-hazkuntzan, batez ere abeltzaintza intentsiboan. Animaliak leku itxietan pilatzen direnean, erraz sortu eta are errazago zabaltzen dira gaitzak; hori saihesteko, pentsuarekin edo urarekin batera, antibiotikoak eman izan zaizkie.

Antibiotiko horiek, ordea kontsumitzaileengana iritsi dira, bai esnearen bai haragiaren bidez. Ondorioz, erresistentziak azaldu dira; hau da, bakterioak erresistente bihurtu dira lehen eraginkorrak ziren antibiotikoekiko.

Horretaz jabetuta, gaur egun lehen baino arautuago dago noiz eman daitezkeen antibiotikoak. Hala ere, oraindik ere detektatzen dira antibiotikoen arrastoak animalia-produktuetan.

Abeltzaintza ekologikoan asko zaintzen dute alderdi hori; horregatik, bestelako tratamenduak erabiltzen dituzte, baina, batez ere, gaitzak prebenitzen ahalegintzen dira.



ARTXIBOKOA

Dena dela, animalia-produktuetan dauden antibiotiko-arrastoak ez dira erresistentzien errudun bakarrak. Ezin da ahaztu sarritan jendeak nolani hartzen dituela antibiotikoak, eta horrek areagotu egiten du bakterioak erresistente bihurtzeko arriskua.

Osasuna giltzarri

Gai kimikoen arrastorik gabeko produktuak lortzea denez helburua, abeltzaintza ekologikoko abereek ez dute hartzen ez hormonarik, ez hazkundearen eta apetituaren estimulatzaileak, ezta botikarik ere. Txertoak, berriz, bakarrik eman daitezke izurri-arriskua badago eta gobernuak hori agindu badu.

Abereak gaixotzen badira, botiken orde bestelako terapiak erabiltzen dira: homeopatia, aromaterapia eta fitoterapia. Sara Lorda da Biolur Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren elkarreko abere-ekoizpenaren arduraduna, eta albaitari homeopatikoa da. Haren esanean, eredu horretan hazitako animaliak gutxitan gaixotzen dira, osasuna izateko baldintza guztiak baitituzte. Hala ere, gaixotuz gero eta animalia-bizitza arriskuan badago, botiken bidezko tratamendua egin daiteke, urtean bitan.

Bestela, homeopatiak eta terapia naturalek emaitza onak ematen dituzte. Esaterako, animaliak berak berez erabiltzen du fitoterapia. Senak aginduta, mesede egiten dion landarea hartzen du, eta sendatu egiten da, albaitariaren esku-hartzerik gabe.

Bestalde, abeltzaintza ekologikoan bertako arrazak hazten dituzte; izan ere,

Abereen ongizatea, funtsezkoa

Abeltzaintza ekologikoaren oinarritzko beste alderdi bat abereen ongizatea da. Horrek esan nahi du animaliak behar fisiologikoak aseta izan behar dituela. Batetik, abere bakoitzak nahiko leku izan behar du, bestela estresa sortzen baita. Bestetik, garrantzitsua da espezie bakoitzaren izaera errespetatzea eta berezko jokabidea izateko aukera ematea. Alegia, animalia barkaria bada, bakarrik ibiltzeko aukera izan behar du, eta taldean bizitzekoa, berriz, taldekoa bada.

Horretaz gain, abereak behar fisiologikoen arabera elikatuta egon behar du; bazkako animalia bada, bazka jan behar du, eta, graniboroa bada, alea. Eta, noski, ez du haragirik jan behar ez bada karniboroa. Bestelakoan, janariak ez du gai kimikoren arrastorik izan behar, eta, ahal izanez gero, abeltzainak bere lurretan ekoitzi behar du, hartara itxi egiten baita zikloa. Bazka edo alea erosi behar badu, nekazaritza ekologikokoa izan behar du.

*“garrantzitsua da
espezie bakoitzaren
izaera
errespetatzea
eta berezko
jokabidea izateko
aukera ematea”*



X. AZKUE

Abeltzaintza ekologikoan bertako arrazak hazten dituzte. Arraza horiek egokituta daude ingurura, eta besteek baino osasun-arazo gutxiago izaten dituzte.

Abeltzantza ekologikoan beste alderdi batzuk ere zaintzen dira, adibidez, energia-kontsumoa.



A. GALARRAGA

arraza horiek egokituta daude ingurura, eta besteek baino osasun-arazo gutxiago izaten dituzte. Gainera, aberearen fisiologia errespetatzen saiatzen dira abeltzainak; esaterako, berez titia uzten duten garaira arte uzten zaie txekorrei eta arkumeei amaren esnea hartzen, ez da onartzen metodo ez-naturalen bidezko araldien sinkronizazioa, ezta enbrioien transferentzia edo eraldaketa genetikoak ere.

Albaitarien arazo handiena bizkarroiak dira, batez ere ardietan eta ahuntzetan. Gibelari eragiten dioten bizkarroiak ohikoak dira, gibel-fasziola esaterako, eta ahuntzei izugarri eragiten die nematodo batek, estrongiloak.

Sara Lordak dioenez, bizkarroiak saihesteko, sailak txandatzea komeni da, bizkarroiaren zikloa mozteko. Horretaz gain, hobe da abereek ez bazkatzea goizean goiz, orduan ateratzen baitira azalera bizkarroiak. Eguzkiak indarra hartu ahala, bizkarroiak lurperatu egiten dira, eta orduan zailagoa da aberea infektatzea. Baina abereak ahal den denbora gehien egoten direnez kanpoan, ez da erraza goizean ez bazkatzea.

Merkaturatzeko zailtasunak

Neurri horiek guztiak hartuta, abeltzaintza ekologikoan lortzen diren produktuak kalitate gorenekoak dira. Ekoizpen-eredu hori aukeratzen duten abeltzainak pozik egoten dira emaitzekin, eta erabat gogobetetzen ditu abereak ondo hazten direla ikusteak. Baina dena ez da hain ona. Izan ere, arazo handiak izaten dituzte beren produktuak merkaturatzean.

“eredu horretan hazten diren abereek ez dute osasun-arazo handirik izaten”

Zaila da kontsumitzaileengana iristea, eta are zailagoa labelarekin lehiatzea eta jendeari garbi uztea zer alde dagoen bataren eta bestearen artean. Gainera, ez zaie ondo iruditzen label-ekoizpenak hainbeste diru-laguntza publiko jasotzea eta berek hain gutxi,

Hemen eta munduan

Abeltzaintza ekologikoa nahiko berria da Euskal Herrian. Lehen elkarteak —Biolor Nafarroa, Biolor Gipuzkoa eta Iparraldeko Biharko Lurraren Elkarte— 1990eko hamarkadaren hasieran sortu ziren. Orduetik, gero eta ekoizle gehiago dituzte, baina azken urteetan hazkundea moteldu egin da, batez ere Nafarroan.

Nolanahi ere, Euskal Herrian ekoizle gutxi daude Europako beste herrialde batzuekin alderatuta. Munduan, ekoizle handienak Australia eta ondoren Argentina dira, baina, proportzioan, Europan erabiltzen da lur gehien ekoizpen ekologikorako. Europan barruan, Italia da buru, eta gero Austria eta Herbehereak datoz; Austriar nekazaritzalurraren % 11 ekoizpen ekologikorako erabiltzen da, eta Herbeheretan % 10.

Azken urteetan, batez ere Frantzia, Espainia eta Britainia Handian hazi da ekoizpen ekologikoa. Espainian, adibidez, 2002an aurreko urtean baino % 37 lur gehiago erabili zen ekoizpen ekologikorako.



ARTXBOKOA

kontuan izanda kalitate handiko produktuak ekoizten dituztela.

Hortaz, abeltzaintza ekologikoan dabilzanek erakundeen aldetik laguntza handiagoa izatea eskatzen dute, bai merkaturatzeko, bai produktuak bereizi eta ezagutarazteko, eta, batez ere, ikerketak egiteko. Hain zuzen ere, garrantzitsua iruditzen zaie ikerketak egitea produktuak hobetzeko eta frogatzeko ezaugarri bereziak dituztela. **□**